

Antoine de Saint-Exupéry osatzen

‘Manon, danseuse’ kaleratuko du Gallimardek, egileak idatzitako lehen nobela, orain artean galduta

JUAN LUIS ZABALA

Manon, danseuse (Manon, dantzaria) argitaratuko du azaroaren hasieran Gallimard argitaletxeak, Antoine de Saint-Exupéry idatzitako aurreneko nobela, orain artean argitaratu gabea eta galdutzat joa. Prostituzioa lanbide duen emakume baten eta 40 urte inguruko gizon baten arteko amodio istorio tragikoa du kontagai, eta «belduma pribatu batean» agertu da, Alban Cerisier Gallimard etxeko editoreak azaldu duenez. Eskuizkribuaren jabeak ez du bere izena jakinarazi nahi izan, ezta eskuizkribuaren jatorria argitu ere.

Nobela laburra da *Manon, danseuse*. Kutxa batean jarriko dute salgai; eta kutxa barruan, nobelarekin batera, orain artean argitaratu gabeko Saint-Exupéryren beste bi testu ere kaleratuko ditu Gallimardek: abiazioari buruzko hitzaldia da bata, gizakiaren barruko aberastasunari buruzkoa bestea, 1935ekoak biak.

PASARTE BAT, LA PLEIADE BILDUMAN.

Testuaren arrastoa galduta bazegoen ere, jakinekoa zen Saint-Exupéry *Manon, danseuse* nobela idatzi zuela. Nobelaren pasarte bat argitaratu zuten La Pleiade bildumak Saint-Exupéryren obra osoak kaleratu zituenean, idazlearen gaztetako adiskide Louise de Vilmoreinek gordearik zeukan eskuizkribu batean oinarrituta.

Ordura artean poesia baino ida-



Antoine de Saint-Exupéry (Lyon, 1900-Borgo, Korsika, 1944), 1936an. AP

tzi gabea, 1923tik 1924rako neguan hasi zen Saint-Exupéry *Manon, danseuse* idazten, eta 1925ean amaitu zuen lana. Gero idatziko zituen nobeletako metodo bera ja-

rraitu zuen: bertsio asko idatzi eta adiskideei eman irakur zitzaten, haien iritziak jasotzeko esperantzan. Gutunetan ere maiz aipatu zuen idazten ari zen nobela.

Testuaren arrastoa galduta bazegoen ere, jakinekoa zen Saint-Exupéry *Manon, danseuse* idatzi zuela

Gaztetan Parisen ezagutu zuen giro bohemiarra islatu zuen Saint-Exupéry *Manon, danseuse* nobelan

Manon, danseuse idazten hasita zegoen garaian ekin zion *Le Vol* nobela laburra idazteari, gero, idazketak aurrera egin ahala, *L'aviateur* bihurtuko zena (1926an argitaratua). Gaston Gallimardek Saint-Exupéryren lau nobelarekin osatutako liburua argitaratzeko asmoa izan zuen garai hartan: *L'aviateur*, *Manon, danseuse*; eta egileak gero idatzi beharreko beste bi. Baina Saint-Exupéry ez zion garrantzi handirik eman asmo horri, eta Gallimardek ere geroko utzi zuen. Gauzatu gabe eta ahaztua geratu zen azkenean.

1929an, *Courrier Soud* argitaratu zuen Saint-Exupéry; 1931n, *Vol de nuit*; 1939an, *Terre des hommes*; 1942an, *Pilote de guerre* (Gerrako pilotu, Josu Zabaletak egin eta Alberdania eta Elkar argitaletxeek Literatura Unibertsala bilduman 2003an kaleratutako itzulpenean); eta 1943an (New Yorken), *Le Petit Prince*, bere obra ezagunena, mundu osoan 80 milioi ale izatera iritsi dena (euskarazkoak Patxi Zubizarretak itzuliak eta Elkar argitaletxeak 2001ean plazaratuak, *Printze txikia* izenburuarekin). Baina *Manon, danseuse* ez zen iritsi plazara, eta oraindik ez dago oso argi zergatik.

Gaztetan, 20ko hamarkadaren hasieran, Parisen ezagutu zuen giro bohemiarra islatu zuen Saint-Exupéry *Manon, danseuse* nobelan. Nahiz eta prostituzioa duen lanbide, maite duen gizonezkoari dantzaria dela esaten dio Manonek. Baina bezero batzuen lekutasunak egiazen arrastoan jarriko dute gizonezko hori. Giza izaeraren alderdirik barrukoenei begira idatzitako pasarte poetikoak eta bizitasun handiko elkarrizketak uztartzen dira kontaktetan.

Paul Haggisen ‘In the Valley of Elah’ emango dute Zinemaldian

ERREDAKZIOA

Donostia

Paul Haggis zuzendari estatubatuarrek zuzendutako *In the Valley of Elah* filma Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean emango dute, beste zinemaldietako bitxien atalean, hain zuzen. *In the Valley of Elah* Veneziako Zinemaldian estreinatu zuten joan den astean, eta oso harrera ona izan zuen kritikaren artean.

Paul Haggisek zuzentzen duen bigarren filma da *In the Valley of Elah* —aurrekoa *Crash* izan zen—, eta Irakeko gerrak AEBetako gizartearen eraginak aurietan arakatzen du. Hain zuzen ere, desagertutako semearen bila abiatuko den amerikar gerra beterano bat du protagonista.

In the Valley of Elah-k ez zuen Veneziako sari ofizialeko saririk irabazi —Signis saria eman zioten—, baina, nolahi ere, kritikaren laudorioak jaso zituen, eta sari nagusiak jasotzeko hautagai sendoa izan zen Mostran.

AEBetako egungo zinemako egile ospetsuenetakoa da Paul Haggis. Gidoilari gisa, Oscarra irabazi zuen *Million Dollar Baby* rekin, eta Clint Eastwooden hurrengo bi lanen gidoiak ere idatzi ditu: *Flags of Our Fathers* eta *Letters from Iwo Jima*. Zuzendari gisa *Crash*-ekin estreinatu zen, eta hiru Oscar irabazi zituen, tartean film onenarena.

Led Zeppelin taldeko kideak elkarrekin ariko dira berriro, azaroan

MUSIKA ■ Banatu zirenetik ia 30 urte direnean, Led Zeppelin taldeko kideek —Robert Plant kantariak, Jimmy Page gitarristak eta John Paul Jones baxu jotzaileak— berriro joko dute elkarrekin, azaroaren 26an, Londresko O2 Arena aretoan. Aurretik, Pete Townshend eta Bill Wyman ariko dira.

Korrontzi eta Standard Berlingo Popkomm 2007 azokan ariko dira

MUSIKA ■ Korrontzi eta Standard taldeak Berlingo Popkomm 2007 azokan ariko dira, irailaren 19an, *Sound from Spain* egitasmoaren barruan. Nena Daconte, Lama-tumba, Berroguetto, Faltriqueira, CatPeople, Glitter Klinik eta Deluxe ere egitasmo beraren barruan ariko dira Berlinen.

Arrisku kontua

KRITIKA

DANTZA
NOORD NEDERLANDSE DANS
- GALILI DANCE

AGUS PEREZ

Miarritzeko Kasinoa leporaino bete zen asteazkenean Itzik Galili israeldar koreografoaren lana ikusteko, eta berak zuzentzen duen Herbeheretako konpainiak hiru pieza aurkeztu zituen gaueko emalduan.

Lehenengo biak iraupen laburrekoak dira eta emakumeek rol nagusia jokatzen dute batean zein bestean. *Chameleon* izenekoan sei neska dantzari agertzen dira agertokiko lehen lerroan aulki bana-

tan jesarrita, eta horrela dantzatu-ko dute denbora guztian, zango, beso eta buruarekin mugimendu segida geometrikoak deskribatuz eta haien artean tartekatuz bizitza arruntean egin daitezkeen keinuak. Izan ere, libartate pasarte txiki haiei esker lortzen du koreografoak piezaren estudio itxura hutsa gainditzea eta izaera femeninoaren ikuspegi polit bat aurkeztea.

Fragile-n, ordea, gizonezko bat agertzen da hasieran, eta publikoari bizkarra emanez dantzatuko du ia denbora guztian, protagonismoa bere inguruan dabilen emakumei uzteko. Bien arteko amodio dantza musika malenkoniatsu baten pean garatzen da eta konposizioan txertaturiko disonantzia

ugariek misterio giroa areagotzen dute. Gizonak hermetismoa eta keinu ekonomia itzela adierazten ditu, baina bere mugimendurik txikiak esaldi koreografiko luze eta aberatsak sorraraziko ditu emakumearengan, eta bien arteko kontrasteak izaera berezia ematen dio piezari.

Gaueko obra nagusia —*Heads or Tales Hot*— izen bereko lan handi baten laburpena da, eta estreinatu eta astebetera etorri da Miarritzeko Maitaldira. Koreografia konplexua da, hainbat atalez osatua, eta pisu handia hartzen dute haietan guztietan Natasja Lanse-nek diseinatutako kortse beltzek —bai emakumeek bai gizonek janzten dituzte—, Yaron Abulafia-ren argiztapen efektista gogorrek eta Percossaren perkusio musikak.

Koreografiaren eraketan hiru atal nagusi nabarmenduko nituz-

ke: dantzari isolatuek hiruakako lerrotan dantzatzen duten hasierako bals kolektiboa, bikote batek taulako mutur bakoitzetik burutzen duen ariketa sinkronizatu harigarriak eta amaiera aldera datorren pantomima koreografikoa, primitibismo zipiritindua eta umore ukitu asko txertatzen dituen. Horren guztiaeren aurrean, eta dantzarien gorputz erakustaldi eta prestakuntza fisikoa ikusita, bakarrik esan ahal dugu ikusgarri bikaintzat jo behar dugula Galiliren lan hau. Niri, ordea, arrisku estetikorik gabea iruditut zait koreografoaren proposamena eta hutsaltasun sentsazio moduko bat utzi dit ezerezaren zerbitzurajartako ahaleginak.

Koreografiak: *Chameleon*, *Fragile*, *Heads of Tales Hot*.

Lekua: Miarritzeko Kasinoa.

Eguna: Irailaren 12a.